



Association TREBATU

Un outil pour se former et se tester en agriculture paysanne

Haize-Berri 64 120 OSTABAT-IZURA

Code APE:0145Z - Siret: 823 273 404 00017 -

N° TVA intracommunautaire : FR 16 823 273 404

## Hazkuntzarako treba gune eskaintza Baigorriko kantonamenduan

- *Hazkuntzan trebatu instalazioa prestatzeko* -

### ESKAINNTZA

#### ■ Laborantzan Trebatzeko Gunea eta TREBATU elkarteak

TREBATU elkarteak, « Laborantzako Treba Gunea » kudeatzen du ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldean. Elkarteak ingurune desberdineko 10 egiturek osatzen dute: laborantza mundukoek, laborantza formakuntzakoak, ekonomia sozial eraldatzailekoak, Euskal Hirigune Elkargoa eta kontsumitzaileen ordezkariak.

Beren instalazio proiektua baieztatzeko, baldintza errealetan, laborantzan trebatu nahi duten pertsoner zuzendua da trebatze gunea.

Elkarteak proiektu eramaileari honakoak proposatzen ditu :

- **Inkubagailu funtzioa**, koadro juridiko, fiskal eta kontablea ahalbidetzen dituen Trebatu eta proiektu eramailearen arteko CAPE (Enpresa proiektua sustengatzeko kontratua) kontratuaren izenpedurarekin (urte bateko kontratua bi aldiz arraberri daitekeena).
- **Mintegi funtzioa** trebagune ekipatu batean (lurrak, lan tresna).
- **Laguntza eta segipena**, trebatzearen lorpena bermatzeko eta instalazio proiektua prestatzeko.
- Dispositibo osoaren **koordinazioa**, lurraldeko aktoreekin lankidetzan.

TREBATU elkarteak funtzio horiek koordinatuko ditu trebatuko den pertsonaren zerbitzuko.

Horrez gain, proiektu eramaileari « **laborari zurkaitz**» bat edo bi izendatzea galdeginen zaio, bere hautu estrategikoetan lagun dezaten. **Lekuko sustengu talde** bat ere beharko du bere inguruan, bere laguntzeko gisan eskualdean integratzen. Horiek guztiak, partaide bakoitzaren inplikazioa suposatzen du, trebatzea lortzeko eta instalazioa ahal bezain untsa prestatzeko.

#### ■ Etxaldea - Treba gunea

**Kokapena:** Baigorriko kantonamenduan (etxaldea hitzordu bat finkatuz baizik ez daiteke bisita)

**Eremuak :** 17,10 ha

- Pentze : 9,20 ha
- Larre : 5,53 ha
- Oihan : 2,34 ha



## Association TREBATU

Un outil pour se former et se tester en agriculture paysanne

Haize-Berri 64 120 OSTABAT-IZURA

Code APE:0145Z - Siret: 823 273 404 00017 -

N° TVA intracommunautaire : FR 16 823 273 404

### Bastimenduak eta ekipamenduak:

- Arditegia, deizteko gela eta transformatze gela (468 m<sup>2</sup>)
- Borda eta aterbea (280 m<sup>2</sup>)
- Mendiko borda (190 m<sup>2</sup>)

**Ekoizpen mota:** Ardi esnedun edo ahuntz hazkuntzarako trebagune egokia

**Kabala tropa :** proiektu eramaileak ekarri beharko du.

Trebagunea pertsona batentzat egokia da.

Etxaldea ez da instalazio gune bat. Trebatu ondotik, pertsonak instalatzeko beste etxalde bat xerkatu beharko du.

### ■ Bete beharreko baldintzak

- Laborantzako diploma (BPREA, BTS edo beste) hautatu ekoizpenean eta esperientzia praktiko minimo bat
- Langabezia edo sozial laguntzak ukan, edo lanaldi partzialean izan, CAPE kontratuaren iraupen osoan
- Aktibitatea abiatzeko 10.000€ izan (kabala tropaz gain)
- Lurraldean laborantzan instalatzeko xedea ukan

### ■ Egin beharrak

- Hautagaitza txostena\* osatu eta igorri berantengatik **otsailaren 10eko**  
\*(txostena telekargatzeko : [www.reneta.fr/trebatu](http://www.reneta.fr/trebatu))
- Proiektua, beharrak eta egin beharrak zehazteko aitzin elkarrizketa bat
- TREBATU elkarteko kidez osatutako batzorde baten aitzinean proiektua aurkeztu
- CAPE kontratuaren izenpedura
- Trebatzearen abiatzea : 2019 ko uda, larrazkenean

Xehetasun gehiagorentzat trebatzeari buruz edo etxaldea bisitatzeko, Trebaturekin harremanetan sar zaitezte (06.49.43.49.42 eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com))

**HAUTAGAITZA TXOSTENAK OTSAILAREN 10eko IGORRI BEHAR DIRA,**

**TREBATU elkarteko lehendakari jaunari zuzenduz**

**ondoko helbideetara :**

« TREBATU elkartea - Haize Berri - 64120 IZURA-AZME » eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com)